

**EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARREN ETA
EUSKAL APAIZEN KOORDINAKUNDEAREN
ESPERIENTZIA FEDEDUNA**

Klase ordu asko igarotako ikasgela berberera berrogeigarren urtean itzultzeak gogoramen asko eta era askotakoak sortarazten ditu ezinbestean.

Bizipen horixe sentitu nuen 1997ko azaroaren 12an Felix Placer Ugartek¹ aurkeztu behar zuen Doktoregoko Tesia entzutera Gasteizko Seminarioko ikasgela nagusira sartzean.

Seminario berdincan eta garai beretsuko ikasleak izan ginen Felix eta biok. Orain apaiza eta aipatutako Seminarioko Teolo-

¹ Felix Placer Ugarte, apaiza eta Gasteizko Teologia Fakultateko irakaslea da; era berean, pastoraltza Zigoitiako (Araba) zenbait herritan burutzen du. Teologiako ikasketak Erromako Unibertsitate Gregoriarrean egin zituen eta pastoralgintzakoak Pariseko Institutu Katolikoan; horietaz gainera Pedagogia eta Soziologia Sorbonako Goi Ikasketa Eskolan eta UNEDen. Teologian doktorea, Pedagogian lizentziatua, Katekesia-Pastoralgintzan masterra egina eta Gizarte-Kultur arloetan eragile diplomatua dugu. Teologia, Pastoralgintza eta Pedagogia gaiet buruzko hainbat liburu ditu argitaratuta, besterik beste, *Desacralización y catequesis* (1973), *Teoría y práctica de la dinámica de grupos* (1988), *Signos de los tiempos signos sacramentales* (1991), *Una Pastoral eficaz* (1993). Baditu beste hainbat idazlan ere teologia askatzailearen metodologiaren ikuspegitik Euskal Herrira begira eginiko teologia eta pastoralgintzako gaiet buruz. Era berean, Doktoregoko Tesian ikerketa kritikoz aztertu dituen Kristau Elkarte Herriarretako eta Euskal Apaizen Koordinakundeko kidea da.

gia Fakultateko irakasle den Felix Placerrek Euskal Herrian bizi dugun egoera gatazkatsua dela eta egindako zenbait gogoeta pastoral eta teologiko ezagutzen nituen.

Aportazio horietan nabaritzen zen 1956an Gasteizko seminarioa utzi genuenetik hona Tesiaren aurkezpenaren marko genuen ikasgelan jasotako irakaspen teologikoak birpentsatu eta birformulatu beharrekoak zirela puntu askotan bizi dugun erre-alitateari egoki nahi izatekotan.

Uldo horretan kokatzen nuen ezagutzen nuen Felix Placerren ibilbide kristaua eta gogoeta teologikoa eta benetako jakingura nuen guzti horretaz maila eta zehaztasun akademikoa behar dituen Doktorego Tesia burutu ahal izateko zernolako formulazio teologikoa eman ote zion.

Egia esateko oso pozik entzun eta jaso nituen Tesiaren azalpenak. Ez zen teologoaren poz akademizista, ez bainaiz teologoa. Mila ilunbe eta zalantzaren tartean hartu eta bizi izandako aukerei buruz sinestadun izan nahi duenari eskainitako argibideak izan nituen poz iturri. Horixe izan zen niretzat eta han izan ziren beste askorentzat ere baietz uste dut, Felix Placerren zortzihun orritako tesi mardularen opari atsegingarria.

Ezinezkoa da tesi baten laburpena bi orritako idazkitxoan laburbiltzea. Hori ezinezkoa denez, hona hemen, Felixek bere tesiak ateratzen dituen ondorenen laburpena.

"Euskal Herriko kristau elkarte herritarren eta Euskal apaizen Koordinakundearen sineste-esperientzia zera da, salbameneren kristau mezuaren iragarpen eta gauzapenarenganako sinesmeneko atxekimendua bizi, adierazi eta burutzeko modu kontextualizatua. Talde biok elkarlangintza bestuan aritu izan dira basiera basieratik. Hauexek dira elkarlangintza hori abalbiderratu duten arrazoiak, erralitateari buruzko kontzientziatze espezifikoa batetik, eta kristau praxi amankomuneko proiektua eta Euskal Herriko elizaren barruan bizipen komunitario eta oinarrizko espiritualitatea bizi abal izateko elkarla-

nean burututako ekintzak bestetik. Taldeon proiektua eta beraren gauzatzea Jesukristoganako sinesmenaren aitortpenak eta Jainkoaren herria den elizaren baitan, bakarra den Salbamen historiaren harian eta sozial eta nazional eremuetan zapalduenak eta xurgatuena direnen aldeko jarreraren ildotik Jesukristori erakutsitako jarraipenaren laialtasunak irudikatzen dute. Hauxe da talde hauen sinesmen-esperientziaren gunea.

Sinesmen-esperientzia eta kontzientzia honexek bultzatu ditu, Euskal Herriko egoera gatazkatsua kontuan izanik egiten duten ebanjelio irakurketaren bidez, ebanjelizatze askatzailea bilatzera eta eskaintzera beste kristau praxi era batzuek egoera hauen aurrean duten jarreraren alternatiba gisa bain juxtu.

Saiatu dira beste eliz forma eta adierazpen alternatibo batzuk bilatzen ere, honako ezaugarri hauek izango lituzken eliza bultzatuz: eliza komunitarioagoa, hots, harreman ez hain bertikalistetan baizik elkarrizketatzaileetan, partehartzaileetan eta anaikorretan finkatua; eliza herritarra, hau da, herriaren arazoetatik hurbil izaten dakiana eta pobreenganako zerbitzuan dibarduana; inkulturatua, euskaldundua hain zuzen eta bakea eraiki abal izateko herri eta nazio bezala Euskal Herriari, justiziaz, dagozkion eskubideen defendatzailea.

Ez da talde hauetan Elizarekiko apurketa edo aurkakotasunaren hipotesia leporatu abal izateko posibilitatea eman dezakeen ez arrastorik ez adierazpenik. Aitzitik, etengabeak eta explizitoak dira elizaren partaide izatearen baieztapenak. Eskaintzen duten proposamena ez da zatikakoa eta erreformista. Beraien alternatibak osoa izan nahi du, hau da, ez doakio elizaren, fede edukien eta sinesmen-konpromezuaren zati bati soilik. Proposatutako eta bizitako berriztapena herri jakin baten textuinguru konkretuan sinestean izateari eta kristau esperientzia bizitzeari bere osotasunean dagokio.

Bai burutu duten sinesmen gogoetak eta bai erabilitako metodologia inductiboak espiritu-beldutasunaren perspektiba eta prozesuak garatzen dituzte eta sinesmen-bizipenerako eta

ebanjelioaren iragarpenerako forma berriak eskeintzen. Halaz ere, pastoral abalegin eta konpromezu ebanjelizatzaile honek garapen eta eguneratze autokritikoa behar dituzte hala metodologian, jazoeren irakurketa hermeneutikoan batez ere, hala eduki teologaletan.

Talde bion jite eragile eta praktikoak ekintza eta jarrera askotan murgildu behar izatera eramán ditu urte hauetan. El-karrizketa zabalagoaren, jarreraren kontrajartzearen eta eliz-barruko debatearen falta nabaritzen da, elkarrenganako hurbilketa edo, gixinez, begiramen objetiboagoz aritu abal izateko.

Irekitze abalegin hau beharrezkoa zaiei bai kristau elkarte herritarrei eta bai euskal apaizen Koordinakundeari. Beste talde batzuk, halaber, susmo eta bildurrak gaindituta, esperientzia alternatiboen kontrastea beharrezko dute, aldien zantsuek Euskal Herrian, gaur egun planteatzen dituzten galderet erantzun egokia eman abal izateko.

Tesi honek, edozein tesik dituen mugen barruan, Euskal Herrian eliza eta bere eginkizun ebanjelizatzailea berriztatzeke kristau elkarte herritarren eta euskal apaizen Koordinakundearen sinesmen esperientziak dituen gailentasuna, aberastasuna eta ahalbideak batetik, eta bestetik muga eta gabeziak frogatzen ditu. Arreta teologiko berezi, sistematiko apaltasun osoz esanda, geure textuingurutik abiatutako pentsaera teologikoa abiarazteko balio dezakela uste dugu eta baita ere aldi eta leku bakoitzeko historiaren unibertsal konkretuaren ikuspegitik elizaren aniztasuna aberasteko. Batez ere, gure elizaren funtsezko eginkizuna, hots, Jainkoaren bakea eta justizia Euskal Herrian presente egitea, hobeto burutu abal izateko laguntza eragile eta diskretoa eskaini nahi du tesi honek”.

Hona arte Felix Placerren tesiaren ondorenak. Tesiaren aurkezpenaren eta ondorenen berri eman ondoren, gogoeta labur bat eginez amaituko nuke.

Teologjako, eta are gahiago esango nuke, erlijio eremuko disziplina akademiko ia guztietako azterketa teologikoak gai teoriko eta abstraktoei buruz egin ohi dira. Gehienetan lizentziatu berriek curriculum-a aberasteko eginak dida.

Ezin da ukatu hausnarketa teologikoak egiterakoan gai teorikoak landu beharra. Jainkoaren herriak bizi den munduan bere fedea bizi ahal izateko dituen erronkei erantzun ahal izateko beharrezko lituzkeen gogoeta, argibide, lekukotasun eta abarrei buruzko lanen urritasuna da nabarmendu nahi dudana.

Urritasun hau areagotu egiten da era guztietako kritika, salaketa eta deskalifikazioen artean bizi nahi den sinesmen-esperientziari buruzkoa denean, komentatu dugun tesian aztertzen den bezalaxe.

Alde honetatik, bada, tesiaren aurkezpena entzuteko aukera izan genuenentzat arnasbide gertatu zitzaigun. Beraz, ezin amaitu Felixek egindako lan bikaina eskertu gabe. Teologo jakitunek, agian, deskalifikatu egingo dute hausnarketa hau; sines-tedun eta herritar askok bihotzez eskertuko dute eta baliatu egingo dira lan honetaz sinesmen bidean sakondu eta aurrera egiteko. Ez da kalifikazioa txarra izango.

Dena dela, entzule izan ginen berrehun pertsona oso gitxi gara. Zorionez, Gasteizko Teologia Fakultateak, ohi duenez, argitaratu egingo du tesia. Argitalpen horrek balio dezala, Felix Placerrek berak dioenez "Jainkoaren bakea eta justizia Euskal Herrian presente egiteko lagungarri izaten".

Martin Orbe